

ORDENANTZA AURREPROIEKTUA, SASIETA MANKOMUNITATEKO GARBIGUNE ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEKOA

ZIOEN AZALPENA

Etxebizitzetan, ohiko jardueren ondorioz sortzen diren etxeko hondakinak gaika biltzeko lekua da Garbigunea, baita industria eta zerbitzuetan sortutako antzeko hondakinak eta merkataritzako hondakinak gaika biltzeko ere. Garbiguneak herritarrei eskuragarri jartzen zaizkie, birziklatu, berrerabili eta balorizatu daitezkeen materialak bertan uzteko.

Sasieta Mankomunitateak modu zuzenean kudeatzen ditu hiru Garbigune, zehazki Beasainen, Ordizian eta Urretxun kokatutakoak. Garbiguneak ezinbestekoak dira hiri hondakinen politika estrategikoak zehazteko, hondakinak eraginkortasunez sailkatzeko eta hondakin fluxuen trazabilitatea egokia izateko, azken batean hondakinen kudeaketan orokorki emaitza hobekak lortu eta birziklapen helburuak betetzeko.

Zerbitzu horren asmoa da herritarrei erraztasunak ematea etxeko altzariak eta bestelako hondakin handiak bertan uzteko, bilketa egutegian horretarako zehaztutako egunera arte itxaron beharrik gabe. Halaber, etxebizitzetan egiten diren obra txikietako eraikuntza eta eraipen hondakinak bertan uzteko aukera ematen da, ez baitago horrelako hondakinak biltzeko berariazko zerbitzurik. Horrez gain, etxebizitzetan sortutako hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzeko aukera ematen du, horrelako hondakinetarako ere ez baitago berariazko bilketa zerbitzurik. Gainera, bolumen handia okupatzen duten hondakin jakin batzuk (kartoia, plastikoa) gordetzeko leku gutxi duten dendei hondakin horiek entregatzeko aukera ematen dio zerbitzuak. Astean 20 kg arrain azpiproduktu sortzen dituzten arrandegiei hondakin horiek behar bezala kudeatzeko aukera ematen die (giza kontsumorako ez diren animalia jatorriko azpiproduktutzat jotzen baitira), eta hildako etxeko animalia txikiak (maskotak) errausteko zerbitzua ere ematen du, besteak beste.

Hiri hondakinen kudeaketaren erronketako bat hondakin hauek duten aniztasunean eta konplexutasunean datza; aspimarratzekoak dira baita ere herritarrekiko duten gertutasuna, agerikotasun nabarmena eta ingurumenean zein giza osasunean duten eragina.

Bestalde, Garbigunek hondakinak errekurtsotzat hartzen eta ekonomia zirkularreko printzipioak gauzatzen laguntzen dute, izan ere bilketa eta berrerapilpeneko borondatezko programak aurrera eramateko eta prebentzioko proposamenak ezagutzera emateko aukera ematen dute.

Sasieta mankomunitateak hondakinen sorkuntzaren arabera ordainketa sistema («pay-as-you-throw») kontutan hartzen bere esparruan emandako zerbitzuari dagozkion tasak onartzerakoan.

Ordenantza hau onartzea beharrezkoa da, alde batetik zerbitzu horren prestazioa arautu ahal izateko, eta bestetik, ekonomia zirkularreko helburuak eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 Direktiban eta Europar Batasuneko Zuzentarauetan, Planetan zein Programetan zehaztutako birziklatze helburu zorrotzak betetzeko.

1. ATALA. ZERBITZUA ZEHAZTEA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Beasainen (Salbatore auzoan), Ordizian (Upabi auzoan) eta Urretxun (Deskarga auzoan) kokatutako instalazioetan ematen den Garbigune zerbitzu publikoaren barne erregimena eta funtzionamendua arautzea, baita zerbitzu hori erabiltzen duten erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehaztea ere.

Garbiguneetan, herritarrek modu aktiboan parte hartzen dute hondakinen kudeaketan, eta Mankomunitateak Garbiguneak eskuragarri jartzen dizkie herritarrei, etxebizitzetan, dendetan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren hondakinak bertara eramanez ahal izateko.

Garbigune zerbitzu publikoaren helburua da erabiltzaileei aukera ematea beren hondakinak bertan utzi eta horiek behar bezala kudeatzeko, oro har, xede hauek betetzeko:

- Hondakinak kontrolik gabe ez isurtzeko eta kutsadurarik ez sortzeko.
- Tratatu beharreko edo amaieran ezabatu beharreko hondakinen bolumena murrizteko.
- Balorizatu daitezkeen materialak behar bezala bereizteko.
- Hondakinetako materialak berreskuratzeko, gero horiek zuzenean birziklatu ahal izateko.
- Ingurumen sentsibilizazio eta prestakuntza programak sustatzeko.
- Berrerabilera sustatzeko.

2. artikulua. Garbiguneen zerbitzu esparrua.

Beasaingo, Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneek Sasieta Mankomunitatea osatzen duten 23 udalerrietan sortutako hondakinak onartuko dituzte: zehazki, Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerrietan sortutakoak.

Ez da eremu horretatik kanpo sortutako edo non sortu den argi ez dagoen hondakinik onartuko.

3. artikulua. Zerbitzuaren hartzaileak

Garbiguneak erabili ahal izango dituzte:

- Partikularrek, ohiko jardueren ondorioz, beren etxebizitzetan sortutako hondakinak bertara eramanez ahal izateko.
- Etxeko hondakinen antzeko hondakinak sortzen dituzten zerbitzu eta industrietan.
- Dendaren berezko jarduera dela eta hondakinak sortzen dituzten dendek (arrandegiek, fruta dendek, altzariak, koltxoak eta abar saltzen dituzten dendek).
- Etxebizitzetan eraikuntza eta konponketa obra txikiak egiten dituzten autonomoek eta enpresek (igeltseroek, iturginek, elektrikariek, eskaiolisteek, arotzek eta abar).
- Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako udaletxeek (gaikako bilketako paperontzietako hondakin birziklagarriak biltzen dituzten edo kalean ibilgailuek harrapatutako hildako maskoten gorpuak erretiratzeko dituzten udal zerbitzuek).
- Salbuespen gisa, Sasieta Mankomunitateko lurralde esparruan sortutako antzeko hondakinak ekoitzi edo gordetzen dituzten entitate publiko edo pribatuek. Horretarako, pertsona interesdunek alde aurretiko eskaera egin beharko dute, eta Sasieta Mankomunitateko zerbitzu teknikoek berriazko baimena eman beharko dute.

Hondakinak sortu dituen pertsonak edo bere lege ala borondatezko ordezkariak entregatu beharko ditu hondakinok.

Edonola ere, zerbitzu hori erabili ahal izateko, ezingo dute zerbitzu horri lotutako zorrik eduki, ezta Ordenantza hau ez betetzeagatik isun edo zehapenik ordaintzeke eduki.

Horrelako hondakinak dituzten pertsonak, Mankomunitateko Garbiguneetan entregatu ahal izango dituzte hondakinok, Ordenantza honetan xedatutako baldintzetan.

4. artikulua. Zerbitzua ematea

Garbigune zerbitzu publikoa zuzenean emango da. Horretarako, Ordenantza honetan xedatutakoa zehatz-mehatz beteko du Sasieta Mankomunitateak, azpiegituren titularra eta zerbitzuaren arduraduna baita.

5. artikulua. Zerbitzua emateagatiko tasa.

Zerbitzua zein erabiltzailerri zuzenduta dagoen eta zerbitzuaren xedea kontuan hartuta, tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

1. Mankomunitatearen barne dauden udaletxeetako zerbitzuek entregatutako hondakin onetsi guztiak.
2. Gainerako erabiltzaileek entregatzen dituzten hondakin onetsi guztiak, honako hauek izan ezik:
 - a) Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraipen hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak.
 - b) Harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza eta eraipen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, PVCko lehioak, beira zatiak, komuneko manparak, polikarbonato izurtuzko xaflak, isolatzaile termiko eta akustikoak, *onduline*, olanak, binilo lurzorua, asfaltozko geruzak eta abar.
 - c) Ibilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak.
 - d) Etxeko animalien (maskoten) gorpuak.
3. Harrizkoak eta harrizkoak ez diren eraikuntza eta eraipen hondakin nahastu handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak, pertsonalki entregatu ahal izango dira, hondakinen kopuruak ez badu 100 kiloko muga gainditzen (25 kiloko 4 zaku) eta hondakinak behin eta berriz entregatzen ez badira (gehienez 500 kg hileko; hau da, 25 kiloko 20 zaku).
4. Sasieta Mankomunitateak zerbitzuari dagozkion tasak zehaztuko ditu urtero, Zergen eta Prezio Publikoen Ordenantzaren bidez.

6. artikulua. Hondakin onargarriak

Oro har, etxebizitzetako eta dendetako hondakinak bakarrik onartuko dira Garbiguneetan.

Halaber, etxebizitzetan sortutako hondakin arriskutsuak onartuko dira, baina ez da onartuko industria jatorriko hondakin arriskutsurik.

Halaber, etxebizitzetan eraikuntza eta konponketa obra txikiak egiteagatik sortutako eraikuntza eta eraipen hondakinak onartuko dira. Horretarako, ez da hirigintzako lizentziarik eduki behar, ezta aldez aurretik eskaerarik egin behar ere.

Ez da onartuko industria jardueretako fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentze prozesuen ondorioz sortutako industria hondakinik. Halaber, ez da obra handietako hondakinik onartuko.

Garbiguneetan, hondakin mota hauek entregatuko dira, behar bezala bereizita:

- 1) Kartoia: kutzak eta kartoizko bilgarriak.
- 2) Metalak eta txatarra: urrezko erradiadoreak, bizikletak, antenak, aulkiak, hondakin ez-arriskutsuen bidoiak, metalezko bainuontziak, metalezko harraskak, txorrotak, sukaldeko tresneria (zartaginak, eltzeak...), errezel barrak eta errailak, metalezko hodiak eta abar.
- 3) Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraipen hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak.
- 4) Harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza eta eraipen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, PVCko lehioak, beira zatiak, komuneko manparak, polikarbonato izurtuzko xaflak, isolatzaile termiko eta akustikoak, *onduline*, olanak, binilo lurzoruak, asfaltozko geruzak eta abar.
- 5) Etxebizitzetako altzari handi ez birziklagarriak: koltxoak, somierrak, sofak, toldoak, gomak, kautxuak eta abar.
- 6) Egur hondakinak: egurrezko altzariak (armairuak, aulkiak, mahaiak...) leiho eta atek, paletak, egurrezko kutzak eta taulak eta abar, beirarik, plastikorik, burdinarik eta gero birziklatzea eragozten duten bestelako elementurik gabe.
- 7) Film motako plastikoa (LDPE): Bilgarrietarako erabiltzen den film motako plastikoa, zumitzik, zakurik, sokarik eta gero birziklatzea eragozten duten bestelako elementurik gabe.
- 8) Plastikoa gogorreko (HDPE, PP, PVC...) hondakin ez-arriskutsuak: fruta kutzak, edukiontziak, solteko salgaien ontzi handiak (SSOH), loreontziak, jostailuak, pertsianak, hodiak, kolpe leungailuak, hamakak, hozkailu eramangarriak, baldeak, konketak, aterki ontziak, loreontziak, loreontzi euskarriak, aulkiak eta plastikozko bestelako altzariak.
- 9) POREX (poliestireno hedatua): poliestireno hedatuzko kutzak, babes bilgarriak eta abar. Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneetan bakarrik jasoko dira hondakin horiek.
- 10) Etxetresna elektriko eta elektroniko handiak (EEEH): hozkailuak, izozkailuak, garbigailuak, lehorgailuak, ontzi garbigailuak, sukaldeko plakak, berogailu elektrikoak, olioeko berogailuak, estufak, labeak, bitrozeramikak, aire girotu gailuak, makina automatikoak, joko makinak eta abar... 50 cm-tik gorakoak.
- 11) Etxetresna elektriko eta elektroniko txikiak (EEET): kontsumoko etxetresna elektriko txikiak, besteak beste, xurgagailuak, mikrouhin labeak, lisaburdinak, ogi xigorgailuak, frijigailuak, ehogailuak, kafe makinak, ile lehorgailuak, sukaldeko irabiagailu elektrikoak, balantzak, labana elektrikoak, ilea mozteko makinak, hortzetako eskuila elektrikoak, bizarra kentzeko makinak, masajeak egiteko makinak, erreminta elektrikoak (zulagailuak, zerratzeko makinak, ebakigailuak, errematxatzeko makinak, iltzatzeko makinak, torloju lotzeko makinak, soldatzeko makinak, belarra mozteko makinak eta abar), josteko makinak, irratia, bideokamerak, musika eta bideo ekipoa, musika tresnak, 50 cm-tik beherakoak.
- 12) Informatika eta telekomunikazio ekipo txikiak: mahai gaineko ordenagailuak (monitorerik gabe), ordenagailu eramangarriak, periferikoak (saguak eta teklatuak), inprimagailuak, kalkulagailuak, fax terminalak, telefono mugikorak, haririk gabeko telefonoak, erantzungailu automatikoak eta abar.

- 13) Telebistak, monitoreak eta pantailak.
- 14) Lanparak eta argiak: fluoreszenteak, kontsumo apaleko bonbillak, LED bonbillak, deskarga eta luminaria bonbillak (harizpizko bonbillak eta bonbilla halogenoak izan ezik).
- 15) Ibilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak.
- 16) Etxebizitzetan bakarrik sortzen diren hondakin arriskutsuak:
- Motor olioak, lubrifikatzaileak eta horrelako substantziak gordetzeko erabili diren plastikozko ontziak.
 - Pinturak, bernizak, disolbatzaileak, itsasagarriak, desugertzaileak, agoarras sintetikoak, tindagaiak, egur babesleak eta bestelako substantziak gordetzeko erabilitako metalezko ontziak.
 - Aerosolak.
 - Autogintzako olio erabiliak.
 - Olio iragazkiak.
 - Pilak eta metagailuak.
 - Erregaiak: gasolina eta gasolioa, 10 litro gehienez.
 - Autogintzako bateriak eta metagailuak oro har.
 - Merkuriozko termometroak.
- 17) Etxebizitzetan bakarrik sortzen diren hondakin ez-arriskutsuak:
- Beirako ontzi hutsak, ECOVIDRIOra bidaltzeko.
 - Etxeko plastikozko eta metalezko ontziak, tetrabrik ontziak, ECOEMBESera bidaltzeko.
 - Erabilitako arropa.
 - Inprimagailuetako toner eta tinta kartutxoak.
 - CDak, DVDak, bideo kaseteak eta musika kaseteak.
 - Butano, oxigeno edo kanpin bonbonak.
 - Su itzalgailuak.
 - Erradiografiak.
 - Loreontzietako eta jardineretako lurra.
- 18) Etxeko animalien (maskoten) gorpuk. Ordizia eta Urretxuko Garbiguneetan bakarrik jasoko dira hondakin horiek. Animalia jabeak behar bezala bilduta entregatu beharko du haren gorpua, eta horrekin batera animalia osasun liburuxka eta identifikazio ofiziala ere entregatu beharko ditu. Dokumentazio hori aurkeztetik salbuetsita egongo dira kalean ibilgailuek harrapatutako animalien gorpuk erretiratu dituzten udal garbiketara zerbitzuak.
- 19) Arrandegietako arrain azpiproduktuak (erraiak, hegalak, hezurak, buruak eta abar), asteko 20 kg gehienez eta giza kontsumorako ez diren animalia jatorriko azpiproduktuko 3. mailako f) ataleko hondakin gisa sailkatuta badaude. Ordizia eta Urretxuko Garbiguneetan bakarrik biltzen dira hondakin horiek, eta Hondakin Kudeatzaile bati bidaltzen zaizkio, arrain irina egiteko. Arrandegiek aurretiko baimena lortu beharko dute zerbitzu hori erabiltzeko. Mankomunitateak emandako giltza erabiliz, Garbigunean kokatutako hotz ganberan sartuko dituzte arrain hondakinak, behar bezala bereizita, poliespanezko kutxetan; errefus birziklaezina, berriz, horretarako ezarritako ontzietan utzi beharko dute. Gainera, hotz ganberako orrian datu hauek idatzi beharko dituzte: arrandegiaren izena, eta zein egun eta ordutan erabili duen zerbitzua. Hondakin guztiak dagokion lekuan utzi ondoren, hotz ganbera giltzaz itxi beharko dute.

Presidentetzaren Ebazpenaren bidez, hondakin onargarrien zerrenda luzatu ahal izango da, baldin eta zerrendan sartu beharreko hondakinak beharrezkoak eta egokiak direla jotzen bada. Sasieta Mankomunitateko egoitza elektronikoa eta Garbiguneetan argitaratuko da zerrendaren aldaketa. Bilketa eta tratamendu kudeaketak optimizatzeko, unean-unean, Garbigune guztietan hondakin mota jakin bat ez onartzeko erabakia hartu ahal izango du Mankomunitateak.

7. artikulua. Hondakin onartezinak

Hondakin onartezinen zerrenda hau orientagarria da soilik, eta xehetasunik gabe aipatzen ditu hondakin motak.

- 1) Amiantodun fibrozementuzko hondakinak. Hautabidea: Mankomunitateak herritarren arretarako zerbitzu berezi bat dauka amiantodun xafla izurtoak (uralita), isolatzaileak, hodiak, andelak eta abar behar bezala kudeatzeko.
- 2) Kimaketa eta sega hondakinak, lorategien eta berdeguneen mantentze lanen ondorioz sortzen direnak. Hautabidea: Beasaingo Sasieta hondakindegia zaharrean horrelako materiala biltzeko eremu bat dauka Mankomunitateak. Beasaingo Garbigunearen bidez kontrolatzen da eremu hori, baita kamera sistema baten bidez ere.
- 3) Etxebizitzetan edo dendetan sortutako hondakin organikoak edukiontzi edo ontzi marroiaren bidez bildu daitezke.
- 4) Hondakin sanitarioak, osasun eta albaitaritza zentroetan sortzen direnak, hondakin horien ontziak eta ontzien hondakinak barne.
- 5) Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak: simaurrak, mindak, animalien zuntzen hondakinak (ardi ilea eta abar), plastikozko hondakinak (siloetarako, berotegietarako plastikoak eta abar, plastikozko bilgarriak izan ezik).
- 6) Nekazaritza sektorean erabilitako produktu fitosanitarioen ontziak (herbizidak, intsektizidak eta fungizidak). Hautabidea: SIGFITOk baimendutako bilketa puntu batean entregatzea.
- 7) Botika, farmazia edo erabilera terapeutikoko produktuen hondakinak. Farmazietan entrega daitezke.
- 8) Herri lan eta obra pribatuetako hondeaketa lanen ondoriozko lurra, harriak eta bestelako elementuak.
- 9) Errepide garbiketako hondakinak (kale garbigailu mekanikoek bildutako hondakinak...).
- 10) Araztegiako lohiak, hobi septikoetako lohiak, estoldetako garbiketa hondakinak.
- 11) Motordun ibilgailuak (autoak eta motozikletak). Hautabidea: Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimenduetan entrega daitezke (atalte lekuetan).
- 12) Animalien gorpuk (behiak, ardiak, zaldiak, txerriak...) eta giza kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Araudiak araututakoak. Hautabidea: Baserri, etxalde eta antzeko lekuetako animalia gorpuen bilketa zerbitzu berezi bat dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- 13) Isurtzean leherkorrak, korrosiboak, oxidatzaileak edo sukoiak izan daitezkeen hondakinak.
- 14) Identifikatu edo nahikoa identifikatu gabeko ala modu anbiguoan identifikatutako hondakinak.

8. artikulua. Kopuruak eta mugak

Pertsona erabiltzaileak oinez edo norbere ibilgailuan joan ahal izango dira Garbiguneko instalazioetara. Gehienez 3.500 kiloko gehieneko masa baimenduko ibilgailuek deskargatu ahal izango dute Garbiguneetan.

9. artikulua. Berrerabili daitezkeen objektuak

Garbiguneez berrerabilera eremuak izango dituzte, pertsona erabiltzailek egoera onean entregatutako gailuak, altzariak eta bestelako elementuak (altzariak, etxetresna elektrikoak, jostailuak, liburuak eta abar) bertan uzteko.

Segurtasun arrazoiak direla eta, eta arriskuei aurrea hartzeko, debekatuta dago hondakinak arakatu, hautatu edo manipulatzea, baita, Garbiguneko langileen baimenik gabe, beste norbaitek Garbigunean utzitako hondakinez jabetzea ere.

Garbiguneetan espazio mugak daudenez eta gailu zein elementu ugari berrerabili daitezkeenez, berrerabilera eremuen funtzionamendua hau izango da:

- 1° Objektu jakin bat nahi duten pertsona guztiek Garbiguneko langileei eskatuko diete hori, horretarako dagokion ESKAERA INPRIMAKIA betez (1. ERANSKINA). Halaber, Mankomunitatearen webgunean ere egin ahal izango dute eskaera (www.sasieta.eus).
- 2° Eskaera egiteko momentuan, eskatutako objektua eskuragarri badago, eta arriskuen prebentziorako baldintza guztiak betez hori har badaiteke, erabiltzaileari unean bertan entregatuko zaio eskatutako objektua. Erabat debekatuta dago erabiltzailea edo Garbiguneko langileak edukiontzietara igotzea, edukiontzietan sartzea edo antzeko beste ezer egitea, beste erabiltzaile batek aldeztu aurretik bertan utzitako objektu bat bertatik ateratzeko.
- 3° Eskaera egiteko unean, eskatutako objektua ez badago eskuragarri, edo arriskuen prebentzio arrazoiak direla eta, ezin bada hartu, eskaera itxarote egoeran geratuko da, eta Mankomunitateko gainerako Garbiguneetara bidaliko da, eskatutako objektua aurkitzeko aukerak areagotu eta entrega epeak murrizteko.
- 4° Eskatutako objektua Mankomunitatearen hiru Garbiguneetako edozeinetan lortzen denean, eskatzaileari jakinaraziko zaio, dagokion Garbigunera joan dadin hori jasotzera. Eskatutako objektua eskatzaileak berak jaso beharko du, astebeteko epean gehienez. Epe hori igarotzen bada, eta eskatzaileak ez badu eskatutako objektua jaso, berrerabilera eremutik erretiratu da, eta birziklatu edo balorizatu egingo da.

Prozedura horren arabera entregatutako objektuak eskatzailearen erabilera pertsonalerako izango dira, eta ezingo dira inola ere saldu. Eskatutako objektua zertarako erabiliko den argi ez badago, Garbiguneko langileek eskumena izango dute eskaerak ezesteko.

Eskatzaile bakoitzak hileko eskaera bakar bat egin ahal izango du Mankomunitateko Garbigune sare osoan, eta objektu bera ezingo du bi aldiz eskatu.

Eskatzaileak 18 urtetik gorakoak izan beharko dira eta Sasieta Mankomunitateko udalerrietako batean erroldatuta egon beharko dira.

10. artikulua. Garbiguneen kudeaketaren eta kontrolaren ardura

Sasieta Mankomunitatea izango da Garbiguneak kudeatu eta kontrolatzeko arduraduna, hain zuzen ere bere langileen bidez eta Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

Garbiguneetan emandako zerbitzuaren barne egongo da hondakinak jasotzea, zaintzea, eta geroago horiek dagozkion kudeatzaile baimenduetara garraiatu eta entregatzea, birziklatu, balorizatu edo deuseztatzea.

Hondakin sortzaile edo edukitzaileek Garbiguneetan onargarriak diren hondakinak eskuragarri jarriko dizkio Sasieta Mankomunitateari, hain zuzen ere Ordenantza honetan xedatutako baldintzetan. Hondakinok entregatzen diren momentutik aurrera, Mankomunitatearen jabetzakoak izango dira. Hondakin horiek sor ditzaketen kalteengatik edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira ekoizle edo edukitzaileak, baldin eta Ordenantza honetan eta gainerako lege arauetan xedatutakoa betez entregatzen badituzte.

11. artikulua. Hondakinaren jabetza

Hondakinak Garbigunean entregatzen diren momentuan, Sasieta Mankomunitatearen jabetzakoak izango dira.

2. ATALA. ZERBITZUA EMATEKO MODUA

12. artikulua. Jendaurreko ordutegia.

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 12:30etara eta 15:30etatik 18:30etara.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:00ak arte.
- Igandeak eta jaiegunak: itxita

Debekatuta dago jendaurreko ordutegitik kanpo Garbiguneetara sartzea.

13. artikulua. Sarbidearen kontrola eta hondakinak entregatzea.

Garbigunearen sarreran informazio panel bat ezarriko da, eta bertan informazio hau zehaztuko da:

- Instalazioaren izena.
- Instalazioaren jabea den entitate publikoaren izena.
- Jendaurreko ordutegia.
- Harremanetarako telefono zenbakia eta webgunearen helbidea.

Garbiguneko langile arduradunek alde zurratik baimena eman beharko diete erabiltzaileei bertara sartzeko.

Garbigunearen sarreran, bertako langileek erabiltzaileei eskatuko diete nortasun agiria eta Garbigunean utzi nahi dituzten hondakinen jatorria egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea. Halaber, Garbigunean utzi nahi dituzten hondakinen ikuskapen bisuala egingo dute langileek. Gainera, hondakin mota bakoitza nola utzi behar den azalduko diete erabiltzaileei, baita edukiontzi bakoitza non dagoen ere. Langileen jarraibideak zehatz-mehatz beteko dituzte erabiltzaileek, eta hondakinak bereizi ondoren, dagozkion edukiontzietan utziko dituzte.

Erabiltzaileek ez badituzte behar bezala betetzen emandako jarraibideak edo instalazioak behar bezala erabiltzen ez badituzte, Garbigunetik irtetea eskatzeko eskumena izango dute Garbiguneko langileek. Kasu oso larrietan, Garbiguneko langileek eskumena izango dute erabiltzaileari bertan sartzen ez uzteko.

Garbiguneetara egiten diren bisitaldietarako, alde zurretiko baimena eskatu beharko da, eta Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoetako langileak bertan egon beharko dira.

14. artikulua. Garbiguneko langileen eskumenak

Garbiguneetan zerbitzua emateko ardura duten langileak egongo dira une oro, hain zuzen ere instalazioaren jendaurreko ordutegian.

Langile horiek eskumen hauek izango dituzte erabiltzaileekiko:

- 1) Garbiguneetako instalazioak ordenatuta, garbi eta behar bezalako kontserbazio egoeran mantentzea.
- 2) Erabiltzailea identifikatzea, baita Garbigunean utzi nahi duen hondakinaren izaeraren, jatorriaren eta kopuruaren inguruko informazioa biltzea ere.
- 3) Garbigunean utzi nahi diren hondakinen ikuskapen bisuala egitea.
- 4) Beharrezkoa bada, Garbiguneko baskulan hondakinen alde zurretiko pisaketa egiteko eskatzea.
- 5) Garbigunera sartzen diren erabiltzaileen, ibilgailuen eta hondakinen onarpen erregistroa eguneratuta mantentzea. Izaera pertsonaleko datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko izaera pertsonala duten datuen tratamenduari eta datu hauen erabilera libreaki dagokionean pertsona fisikoak babesteko eta 95/46/CE Direktiba indargabetzen duen abenduaren 5eko 2018/3 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko

2016/79 Arautegian (UE) xedatutakoaren arabera artxibatu eta tratatuko dira datuak. Ondorengo daue hauek eskatuko dira, ikuskapen ahalmenaren kaltetan gabe:

- Erabiltzailearen identifikazio osoa (izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia, baldin eta pertsona fisikoa bada; enpresaren izena eta IFZ, baldin eta pertsona juridikoa bada).
 - Zein egunetan eta ordutan sartu den Garbigunera.
 - Zein hondakin mota entregatu dituen.
 - Entregatutako hondakin mota bakoitzaren kopurua.
 - Tasa gisa ordaindutako zenbatekoa, baldin eta halakorik ordaindu bada.
 - Hirigintzako lizentziarik edo bestelako gaitze titulurik duen ala ez egiaztatzea.
 - Gorabeherak.
- 6) Garbigunetik atera diren hondakinen erregistro bat eguneratuta mantentzea, Garbigunetik ateratako hondakin bakoitza zein plantara garraiatu den zehaztuta.
- 7) Erabiltzaileei hondakin bakoitza non utzi behar duten azaltzea.
- 8) Ibilgailuekin egin beharreko maniobren inguruko nahitaezko jarraibideak ematea, baita hondakinak nola eta non utzi behar diren azaltzea ere. Halaber, debekuen, segurtasun eta arriskuen prebentziorako arauen eta instalazioek behar bezala funtzionatzeko bestelako jarraibideen berri ematea.
- 9) Garbiguneetako debekuak eta erabilera arauak behar bezala betetzen direla egiaztatzea, besteak beste, hauek:
- a. Hondakin onartezinik entregatzen ez dela.
 - b. Erabiltzaileak identifikatzeari eta entregatu nahi dituen hondakinen izaerari, jatorriari eta kopuruari buruzko informazioa emateari uko egiten badio, Garbigunean hondakinik entregatzen ez uztea.
 - c. Erabiltzaileak hondakinak modu berezian entregatzeari uko egiten badio, Garbigunean hondakinik entregatzen ez uztea.
 - d. Erabiltzaileak hondakinen inguruko egiazko informazioa ez ematearen ondorioz, hondakin onartezinak edo hondakin onargarriekin nahastutako hondakin onartezinak utzi badira Garbigunean, horiek erretiratzeko eskatzea.
 - e. Hondakinak baimenik gabe hartzen ez uztea.
 - f. Hondakinen artean arakatzen, hautatzen edo manipulatzeko ez uztea.
 - g. Erabiltzaileei edukiontzietara igotzen edo sartzen ez uztea.
 - h. Ordenantza honetan xedatutakoa ez den beste edozein asmorekin Garbiguneetara joaten diren pertsonen edota Ordenantza honetan xedatutako arauak betetzei uko egiten dioten pertsonen instalazioetatik modu baketsuan irteteko eskatzea.
- 10) Ordenantza honetan xedatutako prozeduraren arabera, berrerabiltzeko artikuluen entrega eskabideak onartu edo ezestea.
- 11) Obra txikiak direla eta sortzen diren hondakinak entregatu eta utzi direla egiaztatzen duten frogagiriak igortzea, hain zuzen ere 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, eraikuntza eta eraispene hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenak, 3. azken xedapenean xedatutakoaren arabera.
- 12) Sasieta Mankomunitateko presidentek eta zerbitzuburuak agindutako eskumenak betetzea.

15. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

- a) Garbiguneetako erabiltzaileek une oro bete beharko dituzte bertako langileek emandako jarraibideak, hain zuzen ere ibilgailuarekin egin beharreko maniobren, hondakinak nola eta non uztearen, debekuen, segurtasun eta arriskuen prebentzio arauen inguruan emandakoak, baita instalazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren beste edozein aginduak ere.
- b) Garbiguneetara adingabeko batekin joaten bada, adingabeko horren arduradunaren betebeharra izango da adingabekoak Garbiguneko arauak betetzen dituela bermatzea, bereziki segurtasuneko eta istripuei aurrea hartzeko neurriak.
- c) Debekatuta dago Garbiguneetara animaliekin sartzeko, horiek ibilgailu barnean geratzen badira salbu.

- d) Garbiguneetara ibilgailu bidez bertaratzen diren erabiltzaileek gehienez 3.500 kiloko gehieneko masa baimenduko ibilgailuak erabiliko dituzte.
- e) Garbiguneetara ibilgailu bidez bertaratzen diren erabiltzaileek kontu handiz gidatuko dute instalazioetan, beste ibilgailuren batekin talka ez egiteko eta inor ez harrapatzeko. Gehienez 10 km/orduko abiaduran mugitu ahal izango da ibilgailua. Ibilgailuek beharrezkoak diren maniobrak egingo dituzte kontu handiz, betiere gainerako ibilgailuei pasatzeko lekua utziz.
- f) Erabiltzaileek edo beren ordezkariak behar bezala identifikatu beharko dute beren burua, eta Garbigunean utzi nahi dituzten hondakinen izaeraren, jatorriaren eta kopuruaren inguruko informazioa eman beharko dute. Halaber, hirigintzako lizentziarik edo bestelako gaitze titulurik duten ere jakinaraziko dute. Datuen babeserako araudiak xedatutakoaren arabera tratatuko dira datuok.
- g) Garbiguneko langileek hala eskatzen dutenean, bertako baskulan pisatu beharko dira hondakinak.
- h) Erabiltzaileek behar bezala utzi beharko dituzte hondakinak, hondakin mota bakoitzari dagokion edukiontzian, bakoitzaren jatorria kontuan hartuta eta modu ordenatuan. Edukiontzia beteta badaude, debekatuta egongo da edukiontzi horietara beste ezer botatzea, harik eta husten diren arte.
- i) Erabiltzaileek kontu handiz egingo dituzte beren hondakinak deskargatu, alde batetik bestera eraman eta edukiontzietan uzteko jarduerak, gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko, batez ere hautsik edo zaratarik ez sortzeko.
- j) Hondakinak edukiontzietan utzi ondoren, konturatu gabe lurrera botatuko hondakinak jasoko dituzte erabiltzaileek, eta eremua behar bezala garbituko dute.
- k) Entregatu nahi diren hondakinen erretiratze ordena errespetatu beharko dute erabiltzaileek, baita Garbiguneko arduradunaren aginduak ere, baldin eta debekuren bat edo erabilera arauetako bat hausten bada.

16. artikulua. Debekuak

1. Garbiguneetara sartzea bertako langileen baimenik gabe.
2. Garbiguneen zerbitzu esparrutik kanpo dauden hondakinak bertan uztea.
3. Hondakin onartezinak botatzea, edo hondakin onartezinak hondakin onargarriekin nahastuta botatzea.
4. Hondakinak Garbiguneen kanpoaldean uztea, bai jendaurreko ordutegian, bai ordutegi horretatik kanpo.
5. Hondakinak edukiontzietatik kanpo edo ez dagokien edukiontzietan botatzea.
6. Garbiguneetako hondakinak miatu, hautatu edo manipulatzeko.
7. Garbiguneetako edukiontzietara igo edo horietan sartzea.
8. Garbiguneetako hondakinez jabetzea bertako langileen baimenik gabe.
9. Garbiguneetara sartzea jendaurreko ordutegitik kanpo.
10. Edozein desmuntatze, zatiketa, ataltze, apurtze edo bestelako manipulazio eragiketa egitea Garbiguneen barnean, sarreran edo inguruko lurzatietan.
11. Garbiguneetara eramandako hondakinak beste erabiltzaile batzuei ematea, beraiek horiek entregatzeko. Ibilgailuak geldirik uztea, zerbitzua behar bezala erabiltzen ez uztea edo zerbitzua oztopatzea; Garbiguneen barrutian, sarreran edo inguruko lurzatietan geratzea, hondakinak bertan utzi edo botatzea ez den beste helburuetarako.
12. Segurtasun arazoak direla eta, Garbiguneen barruti osoan debekatuta dago erretzea.

3. ATALA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

16. artikulua. Arau hausteak

Arau hauste administratiboak izango dira Ordenantza honek jasotzen dituen arauak hausten dituzten egintza edo ez egiteak.

1. Arau hauste oso larriak izango dira hauek:

- a) Hondakinak Garbigunearen kanpoaldean uztea, bai jendaurreko ordutegian, bai ordutegi horretatik kanpo.
- b) Garbiguneko hondakinak miatu, hautatu edo manipulatzeko.
- c) Garbiguneko edukiontzietara igotzea edo horietan sartzea.
- d) Garbiguneko hondakinez jabetzea langileen baimenik gabe.
- e) Edozein desmuntatze, zatiketa, ataltze, apurtze edo bestelako manipulazio eragiketa egitea Garbigunearen barnean, sarreran edo inguruko lurzatietan.
- f) Hondakin onartezinak botatzea, edo hondakin onartezinak hondakin onargarriekin nahastuta botatzea.
- g) Beste erabiltzaileei zerbitzua modu egokian erabiltzen ez uztea, edo hori oztopatzea.
- h) Instalazioetan, ekipoetan eta azpiegiturretan asmo txarrez kalteak eragitea.
- i) Garbigunera sartzea jendaurreko ordutegitik kanpo.
- j) Arau hauste larrien errepikapena. Arau hauste larrien errepikapena dagoela joko da, urtebeteko epean gutxienez bi arau hauste larri egin badira.

2. Arau hauste larriak izango dira hauek:

- a) Hondakinen izaeraren, jatorriaren edo kopuruaren inguruan eskatutako informazioa ez ematea, edo informazio faltsua ematea.
- b) Garbiguneko langileen aginduak eta jarraibideak ez betetzea.
- c) Garbiguneko baskulan hondakinak ez pisatzea.
- d) Garbiguneko langileei begirunea galtzea.
- e) Arau hauste arinen errepikapena. Arau hauste larrien errepikapena dagoela joko da, urtebeteko epean gutxienez bi arau hauste arin egin badira.

3. Arau hauste arinak izango dira hauek:

- a) Hondakinak edukiontzietatik kanpo edo ez dagokien edukiontzietan botatzea.
- b) Hondakinak dagozkion edukiontzietan botatzeko orduan, hondakinak deskargatu, alde batetik bestera eramanez edo botatzea lurrera erortzeko hondarrak ez jasotzea.
- c) Oro har, Ordenantza honetan xedatutakoa urratzen duen edozein arau hauste edo ez egitea.

17. artikulua. Zehapenak

Mankomunitatearen presidentetzak izango du Ordenantza honetan xedatutako zehapenak ezartzeko eskumena.

Aurreko artikuluan xedatutako arau hauste bakoitza zehatu ahal izango da jarraian zehaztutako eskalaren arabera isun batekin. Hala ere, isunak ez du arau haustea salbuesten gauzak zeuden moduan uztetik, ezta Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek alde aurretik ebaluazioa egin ondoren, bere arau haustearen ondorioz egon litezkeen kalte ordainak ordaintzetik ere.

Berrezartze eragiketak egiten ez badira, ordezkoko exekuzioa egingo da, arau haustearen izenean eta bere kontura.

- a) Arau hauste oso larriak: Garbiguneko zerbitzuak erabiltzeko debekua eta/edo 450,01 eta 900,00 euro arteko isuna.
- b) Arau hauste larriak: 90,01 eta 450,00 euro arteko isuna.
- c) Arau hauste arinak: Ohartarazpena eta/edo 90,00 euro arteko isuna.

Irizpide hauek kontuan hartuta ezarriko dira zehapenak:

- Arau haustea sorrarazi duen egintzaren ondorioak.
- Erruduntasun maila edo asmo txarrik egon den.

- Lortutako onura.
- Jarrera arau hausleak bere horretan jarraitzen duen.
- Berrerortzea, urtebeteko epean izaera bereko arau hauste bat baino gehiago egiteagatik, administrazio bidean irmoa den ebazpen batek hala adierazten duenean.

Arau haustea sorrarazi duen egintzaren larritasunaren arabera aplikatu beharreko zigorra eta kasuan kasuko baldintzak kontuan hartuta, kasua ebazteko organo eskudunak zigor arinagoa ezartzeko erabakia har dezake.

Arau hauste baten ondorioz, nahitaez beste arau hauste bat ala batzuk sorrarazten badira, egindako arau hauste larriena bakarrik kontuan hartuta ezarriko da zigorra.

Arau hauste jarraitu gisa zigorgarria izango da administrazio xedapen bera ala antzekoak hausten dituzten egintzak edo ez egiteak egitea, aurrez bururatutako plan bat betez edo aukera bera aprobetxatuz.

18. artikulua. Zehapen prozedura

Zehapen ala zigortze ahalmena aplikatzeko, dagokion espedientea ireki eta izapidetu beharko da, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera.

19. artikulua. Erantzukizuna

Ordenantza honetan xedatutako edozein zehapen ezartzeak ez du zigortutako pertsonak eduki dezakeen erantzukizun zibil edo penala eragotziko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Interpretazioa

Sasieta Mankomunitateak izango du Ordenantza honen aplikazioa dela eta sortzen diren zalantzak interpretatu eta ebazteko eskumena.

Bigarrena. Gaikuntza

Sasieta Mankomunitateko presidentetzari ematen zaio Garbigunean ematen diren zerbitzuen eskaera inprimaki normalizatuak onartu eta aldatzeko gaikuntza.

Presidentetzaren ebazpen bidez arautuko dira erabiltzaileei arreta emateko eta horien hondakinak jasotzeko ordutegia zein egutegia, era horretan zerbitzuen funtzionamendua arautzeko. Sasieta Mankomunitatearen egoitza elektronikoan eta Garbigune bakoitzaren sarreran une oro ikusgai egongo dira ordutegi horiek.

Hirugarrena. Indarrean jartzea

Ordenantza hau osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean, hain zuzen ere 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Ezartzen Dituenak, 65.2 eta 70.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da indarrean.

1. ERANSKINA

BERRERABILTZEKO OBJEKTUEN ESKAERA-INPRIMAKIA FORMULARIO DE SOLICITUD DE OBJETOS DESTINADOS A REUTILIZACIÓN

ESKATZAILEAREN DATUAK DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	
Helbidea Dirección	Udalerrria Municipio
Harremanetarako telefonoa Teléfono de contacto	e-mail e-mail
ENA DNI	Jaiotze-data Fecha de nacimiento
Eskaera-data Fecha de solicitud	Ibilgailuaren matrikula Matrícula del vehículo
Helbide elektronikoa gaitua (HEG) * Dirección electrónica habilitada (DEH) *	
ORDEZKARIAREN DATUAK DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	
Helbidea Dirección	Udalerrria Municipio
Harremanetarako telefonoa Teléfono de contacto	e-mail e-mail
ENA DNI	Jaiotze-data Fecha de nacimiento
Eskaera-data Fecha de solicitud	Ibilgailuaren matrikula Matrícula del vehículo
Helbide elektronikoa gaitua (HEG) * Dirección electrónica habilitada (DEH) *	
Eskatutako objektua Objeto solicitado	

(*) **Administrazio publikoek telematikoki bidali ditzaketen jakinarazpen administratiboak jasotzeko helbide elektronikoa**

(*) Dirección electrónica para la recepción de las notificaciones administrativas que por vía telemática puedan enviar las Administraciones Públicas.

ESKATUTAKO OBJEKTUA EMATEKO BALDINTZAK	CONDICIONES DE ENTREGA DEL OBJETO SOLICITADO:
---	--

<ul style="list-style-type: none"> Berrerabilpena sustatu asmoz Sasieta mankomunitateak oraindik egoera onean dauden eta erabiltzeko moduan dauden objektuak eskatzaileen eskura jartzen ditu. Objektu hauek eskatzailearen erabilera pestsonalerako dira soilik eta ezingo dira inolaz ere komertzializatu. Eskatutako objektua mankomunitateak dituen edozein garbigunetan lortzen denean, eskatzaileari dagokion garbigunera joateko abisua emango zaio. Eskatzaileak aste beteko epean gehienez ere objektua jasoko du. Eskatzaileak epe horretan objektua jasotzen ez badu, berrerapilpen gunetik erretiratu egingo da eta birziklatzera edo balioztatzera bideratuko da. Eskatzaile bakoitzak hilero eskaera bat egin dezake mankomunitateko garbigune sare osoan eta ezingo du objektu berbera bi alditan eskatu. Eskatzaileak 18 urte baino gehiago izango ditu eta Sasieta mankomunitatea osatzen dituen udalerriteko batean erroldatuta egongo da. Segurtasuneko eta arriskuen prebentzioko arrazoiak direla medio, gutziz debekatua dago garbigunean utzitako hondakinak arakatzea, aukeratzea, manipulatzera eta garbiguneko pertsonalaren baimenik gabe horien jabe egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Para fomentar la reutilización la Mancomunidad pondrá a disposición de los solicitantes objetos que por su estado de conservación todavía se pueden usar. Dichos objetos serán exclusivamente para uso personal de la persona solicitante y en ningún caso se podrán destinarse a su comercialización. Una vez se disponga del objeto solicitado en cualquiera de los tres garbigunes de la mancomunidad, se dará aviso al solicitante para que acuda al garbigune correspondiente. El objeto deberá ser recogido por el solicitante en un plazo máximo de una semana. Una vez transcurrido este plazo sin que el solicitante hubiera recogido el objeto, éste será retirado del área de reutilización y se destinará a su reciclaje o valorización. Cada solicitante sólo podrá realizar una solicitud mensual en toda la red de garbigunes de la Mancomunidad y no podrá solicitar dos veces un mismo objeto. El solicitante deberá ser mayor de 18 años y estar empadronado en alguno de los municipios integrantes de la Mancomunidad Sasieta. Por razones de seguridad y prevención de riesgos, está terminantemente prohibido rebuscar, seleccionar o manipular residuos o apropiarse de residuos depositados en el garbigune sin la autorización del personal del garbigune.
--	--

AGIRIA sinatu aurretik, irakurri DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA		Antes de firmar el DOCUMENTO, debe leer la INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS	
Tratamenduaren xedea	Ingurumeneko diziplinari (BAIMENAK) buruzko espedienteak izapidetzea. Estatistikak egitea.	Finalidad del tratamiento	Tramitación administrativa de expedientes de disciplina medioambiental (AUTORIZACIONES) Realización de estadísticas.
Tratamenduaren legitimazioa zein lege-oinarria	Interes publikoa xede duen misioa betetzea edo ardurarari emandako botere publikoak egikaritzea, lege-maila duen arau batek emandako eskumenean oinarritutakoak: Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 12.3 c) eta 21.3 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.17 artikulua.	Legitimación o base jurídica del tratamiento	Cumplimiento de una misión realizada en interés público o ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable, por derivar de una competencia atribuida por una norma con rango de ley: artículos 12.3 c) y 21.3 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados y el artículo 17.17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
Informazioa kontserbatzeko epea zein irizpideak	Diziplina- eta zerga-espedienteen izapidetzan. Balioetsitako epea: 5 urte.	Plazo o criterios de conservación de la información	Durante las fases de tramitación de expedientes de disciplina y tributario. Plazo estimado: 5 años.
Profilak egiteko edo erabaki	Ez.	Existencia de decisiones	No.

automatizatuak hartzeko asmoa		automatizadas elaboración o de perfiles	
Datuen lagapena	Ararteko, Herriaren Defentsarako erakundea, eta legez aurreikusitako beste edozein lagapen.	Cesión de datos	Ararteko, Defensor del Pueblo, Juzgados y Tribunales y otras cesiones que estén previstas legalmente.
Hirugarren herrialdeetara datu-transferentziak	Ez, legezko betebeharra izan ezik.	Transferencia de datos a terceros países	No, salvo obligación legal.
Eskubideak: (Mugatuta daude, ingurumeneko eta hirigintzako diziplinako prozedurak oztopa ditzaketan neurrian)	1. Datuetan sartzeko eskatzeko eskubidea. 2.*Datuak zuzentzeko, ezerezteko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubideak. 3.*Tratamendua murriztea eskatzeko eskubidea. 4. Datuak eramateko eskubidea. 5. Kontrol agintarien aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea.	Derechos: (Están limitados en cuanto que son susceptibles de impedir el desarrollo de los procedimientos de control de disciplina medioambiental y urbanística)	1. Derecho a solicitar el acceso a los datos. 2.*Derecho a solicitar la rectificación, supresión o de oposición al tratamiento. 3.*Derecho a solicitar la limitación de su tratamiento. 4. Derecho a la portabilidad de los datos. 5.Derecho a presentar reclamación ante las autoridades de control.
Tratamenduaren arduraduna	Sasieta Mankomunitatea Iturralde txikiko industrialdea 3.-2. solairua 20.200 Beasain info@sasieta.eus 943.161.555	Responsable del tratamiento	Mancomunidad Sasieta Iturralde txikiko industrialdea 3-2º piso 20.200 Beasain info@sasieta.eus 943.161.555
Datuak babesteko ordezkaria	Harremanetarako datuak: info@sasieta.eus	Delegado/a de protección de datos	Datos de contacto: info@sasieta.eus
<p>ARAUDIA: Norbanakoan datuen tratamendua egingo da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoari jarraituz, baita 2016/679 Erregelamenduak (EB) 2016ko apirilaren 27koak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak xedatutakoari ere.</p> <p>Informazio gehiago nahi baduzu, (www.sasieta.eus) egoitza elektronikoko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Segurtasunari buruzko Politika kontsultatu.</p>		<p>NORMATIVA: El tratamiento de los datos de carácter personal se efectuará con arreglo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales y en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE.</p> <p>Para más información, consulte en el área de Política de Protección de Datos Personales y Seguridad en la sede electrónica (www.sasieta.eus).</p>	

Izenpetzen duen pertsonak baldintza guztiak eta bere datuen tratamendua onartzen ditu.

La persona que firma acepta todas las condiciones y consiente el tratamiento de sus datos

Sinadura / Firma